

IKASLEEN AHOZKO GAITASUNA, EUSKARAREN ERABILERA ETA EUSKARAREKIKO JARRERAK

Aurrera begira kontuan izatekoak eta bi proposamen

Oso kontuan izan:

- **Ikasleen hizkuntza-ohiturak ulertu:** hainbat ikaslek erdararako joera izatea ez da ona edo txarra, gehien gehienetan logikoa besterik ez da.
- **Guk nahi dugu beraiek euskaraz gehiago egitea.** Batetik, ahozko gaitasuna garatzeko. Bestetik, euskararen erabilera indartzeko.
- **Guk lagundu behar diegu euskaraz gehiago egiten.** Horretarako egoera aproposak sortu behar ditugu eta prozedurak zaindu behar ditugu. Ez dira zailak, baina ondo erabili behar dira.
- Oso argi eduki: **guk ez badiegu behar bezala laguntzen, behar gehien dutenek ez dute erabiliko** eta zaila egingo zaie gaitasun egokiak garatzea.

- Beraz:

- o Irakasle taldearen jarrera adostu eta modu kontzientean erabili. Izan guztiok Hezitzaile Berritsu aktiboak.
- o Ahozkoari lekua egin eta prozedurak zaindu. Beraien artean hizketan jarri behar ditugu egoera antolatuetan. Hori gure ardura da. Zenbat eta gehiagotan hobe.
- o Motibazioa lantzeko jarduerak egin daitezke. Lagungarriak dira. Baina aurreko bi puntuek garrantzia askoz handiagoa dute.

Aurrera begirako bi proposamen:

- 1- Hiru hileko bakoitzaren hasieran Hezitzaile Berritsu erronka bat eta Motibazioa oinarri duen jarduera bat egin.
- 2- Arlo guztietan ahozkoari lekua egin. Horretarako: arlo bakoitzerako jarduera esanguratsuren bat aukeratu eta horiek egiterakoan prozedura oso ondo zaindu.

Hezitzaile Berritsu erronkak: irakasle taldeak Hezitzaile Berritsu prozedura modu kontzientean eta aktiboan erabili behar du. Epe baten barruan eta norberak bere burua baloratuz. Merezi du hau egiteak: lorpenak egongo dira txikiak badira ere eta gure ardura betetzeko oinarrizkoa da. Zailtasunak eta mugak ikusteko ere balio du.

Motibazioa oinarri duten jarduerak:

Hizkuntza-ohituretan eragitea bilatzen dutenak: lagungarriak dira eta Hezitzaile Berritsu erronkekin batera egiteko aproposak. Irakasleok ahalegin berezi bat egiten ari garen tarte horretan ikasleek ere euskara gehiago erabiltzeko ahalegin kontziente bat egiten dute. Erabilera indartzeko bide bat da, baina ez hizkuntza-ohiturak aldatzekoa. Jarrerei begira oso interesgarria da: epe baten barruan euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egin dut eta ahalegin hori sentsazio positiboekin lotzen dut.

Erabileran eragiten duten faktoreetan eragitera begirakoak: jarrerei begira oinarri on bat eskaintzeko oso interesgarriak. Zenbait saio erabil daitezke eta horretarako egokiak diren dinamikak egin, edo eskolatik antolatzen diren jarduera berezietan faktoreen ikuspegitik zer egin daitekeen ere aztertu daiteke.

Arlo guztietan ahozkoari lekua egin: benetan garrantzitsua da ahozkoari lekua egitea gaitasunak garatzeko eta erabilera indartzeko. Hau da: beraien artean hizkuntza erabiltzeak ezinbestekoa izan behar du, kanpo-zentro-parte jokatu behar dugu. Ahalegina eskatu, lagundu, errefortzuak eman. Zuek neurtu ahozkoari zenbateko lekua eman, baina: ez badiozue ematen ez diezue laguntzen, eta ematen badiozue prozedura zaindu.